

Serantes mendian, 2016 abenduaren 23an

Olentzero maitea:

Serantes mendian nago, zure zain. Arratsalde osoa eman dut zure bila, baina ez zaitut aurkitu. Etxean arazo larri-larriak dauzkat. Horregatik etorri naiz hona, zure laguntza behar dudalako. Ez zara agertu, ez dakit non demontre sartu zaren eta horregatik gutun hau idaztea erabaki dut. Zuk ongi dakizunez, Maialen naiz eta beste pertsona batzuk bezala, nire bizitza ez da erraza izan. Ainhoaren jaiotzak gure bizitzak guztiz aldatu zituen. Medikuek berria eman zigutenetik jakin genuen down sindromea zuen alaba izatea ez zela bide erreza izango. Ainhoa jaio eta bi urte geroago, egun batetik bestera, aitak etxetik alde egin zuen eta egun horretatik ez dugu ezer gehiago jakin berari buruz. Aita joan zenetik ama ez da berdina, triste baino tristeago bizi da eta hori dela eta, ni naiz Ainhoaz arduratzen den bakarra. Ama garbitzailea da eta irabazten duenarekin ez digu ematen luxuzko bizimodua eramateko. Ez dakit amaren papera ondo betetzen ari naizen, baina ahal dudan guztia egiten dut, hau ez da erraza. Ni Ainhoarekin joaten naiz eskolara eta joandako astean klasean arazoak izan ditu. Gabonak heltzeaz daude eta denok zu etortzeko irrikan gaude, baina Ainhoaren gelan ez da hori gertatzen. Ainhoak kontatu zidan gelan zeudela zuri gutun bat idazten irakaslea agindu zuelako eta bapatean iskanbila hasi zen. Hegoik esan zuen dena gezurra zela, zu ez zinela existitzen eta orduan, denak oihuka hasi ziren. Ainhoa negarrez atera zen eskolatik egun horretan eta negarrez jarraitze du bere logelan oraindik. Nik ez dakit zer egin Olentzero, ez dit sinisten, ez du nirekin hitz egin nahi, eta oso haserre dago nirekin. Ez dut nahi urte guzti hauetan lortu duguna pikutara joatea. Lagundu mesedez, bion artean lortu behar dugu zuegan konfiantza berreskuratzea berriro. Espero dut ahal duzun guztia egitea, ziur lortuko duzula. Ideiaren bat burutzen bazaizu badakizu non aurkitu ahal naizun.

Eskerrik asko


Maialen

2016-12-9

Kaixo Olenzero maitea:


Ame Garcia maiz eta 10 urte ditut, baina zuek hori oso ondo dakizu, primeram ezagutzen nauzuek. azken hamar urteetan, ni eta nire familiakoez eskatu dugun guztia (edo gehiena) ekarri diguzu. Opari horiekim oso zoriontsuak izan gara.

Urte honetan, ez ditut ezer eskatu nahi. Zure bultzeta osoan lan handia egim duzu. Hasieram, ikatza behartzei buruz, eta gero opariak eramaten etxe guztietara. Horregatik, eskatu beharrean, opari batzuk eskaini nahi dizkizut:

Nire lehenengo opariak nire irriburra  eta postasuma izango dira. Harekin triste dauden pertzoei alaitasuna eramam ahal diezu.

Bigarrena, nire laguntza zuma izango da laguna barik dauden umentzako.

Eta azkenik nire denera libre eta maitasuna izango dira. Horrela ez da inor bakarrik egongo eta guztiak maitatuak sentituko dira.

Beno Olenzero, nire opariak zure guztuek izatea espero dut. Zoriontsua izan!! Besarkada eta musu handi bat!! 

Ame
7



OLENTZERORI GUTUNA

Olentzero agurgarria:

Badakit oso lanpetuta zaudela, opariak kutxetan sartzen eta gutunak irakurtzen, baina eskertuko nizuke mezua arretaz irakurtzea, niretzat oso garrantzitzua da eta.

Urte honeta nahi dudana ez dizut eskatuko nahi dudana, baizik eta behar dudana. Behar dudana bizidun guztientzako zoriona, hau da, inguruabar txarretan dauden pertsona, animali eta landareentzat zoriona eta guztiok familia eta lagunekin egoteko denbora gehiago eukitzea da.



Horrez gain, nire aitak ospitale batean lan egiten duenez, ondo dakizkit ospitaleetan dauden egoerak, eta horregatik dirua eskatuko dizut, alde batetik medikuek gaixotasunen aurka egiteko zerbait aurkitu ahal izateko eta beste aldetik txiroek eta animaliek bizileku eta janaria eukitzeko.

Eta azkenik, mesedez, ekarriko ahal zenidake pijama berri bat? Guztiak apurtuta ditut eta.

Badakit gauza asko direla, baina zugar konfiantza handia dut eta eskertuko nizuke betetzea.

Baita ere, hori betetzen saiatzeagatik, abenduaren 22 abestera aterako gara klasekoekin, ea zerbait entzuten duzun!



Eskerrik asko zure denboragatik.

Musu handi-handi bat:

Irati